

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

VITORIA-GASTEIZKO UDALA

GIZA BALIABIDEEN SAILA

Hautaketa eta Garapen Unitatea

Ebazpena, 2018ko eta 2019ko lan-eskaintza publikoko deialdiaren oinarriak onartzen dituenak. Oinarri orokorrak eta espezifikoak

Udal honetako administrazio orokorreko eskalan eta eskala teknikoan hutsik dauden lanpostuen zerrenda ikusi da.

Kontuan izan dira Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legean jasotako manuak, IV. kapituluaren 2. ataleko 36. artikuluan jasotzen baitu printzipio orokorra, euskal administrazio publikoek aukera-berdintasunerako baldintzak eta enplegua eskuratzeko tratu-berdintasuna susta ditzaten, baita Gizon eta Emakumeen arteko Benetako Berdintasunerako martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoaren I. tituluko 5. artikuluan eta V. tituluko 51. artikuluan xedatutakoak ere, eta aintzat harturik lege organiko horrek berak, I. kapituluko 11. artikuluan, ekintza positiboen edukia eta xedea definitzen dituela desberdintasun-egoera nabarmenak zuzentzeko zuzenbide-tresna gisa, deialdi honek badu generoaren arabera eraginaren alde aurreko ebaluazioa, Euskal Autonomi Erkidegoko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako VI. Planean aurreikusitakoa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legean ezarritakoa betetze aldera.

Deialdi hau egonkortzeko hautaketa-prozesua da, eta 2019-2023 aldirako Vitoria-Gasteizko Udalaren giza baliabideak arrazionalizatzeko programan aurreikusitako ekintzetako bat da.

Kontuan izan da Funtzio Publikoaren Sailak 2017ko uztailaren 21ean hartutako konpromisoa, A, B, C, D eta E taldeetarako LEPen deialdiak egitekoa.

Kontuan izan da Toki Araubidearen Oinarriak Arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeak –tokiko gobernu eraberritzeko neurriak biltzen dituen abenduaren 16ko 57/2003 Legearen bitartez aldatua– 127.1.h) artikuluan Tokiko Gobernu Batzarrari aitortzen diola enplegu publikorako eskaintza onesteko eskumena, eta, halaber, langileak hautatzeko proben eta lanpostuak betetzeko lehiaketan oinarriak onestekoa, baita beste organoren bati aitortu ez zaizkion langileen inguruko bestelako erabakiak hartzekoa ere.

Kontuan izan da Tokiko Gobernu Batzarrak 2018ko abenduaren 28an eta 2019ko abenduaren 13 eta 20an hartutako erabakiak, zeinen bidez onetsi baitziren besteak beste C taldeko (C1 azpitaldea) administrazio orokorreko eskalan eta eskala berezian sartzeko lanpostuen eskaintza.

Hori guztia kontuan izanik, Toki Jaurbidearen Oinarriak arautzen dituen 7/85 Legeak –abenduaren 16ko 57/2003 Legeak aldatua– 127. artikuluan aitortzen dizkidan eskumenez baliatuz, eta Vitoria-Gasteizko Udaleko Gobernu Batzarraren 2019ko ekainaren 21eko erabakiaren bitartez nire esku utzitako aginpidea betez, honako hau ebatzi dut:

1. 2018ko eta 2019ko lan-eskaintza publikoei dagozkien deialdiaren oinarriak onestea, “2020ko deialdia” eranskinean zerrendatzen diren lanpostuak betetzeko.

2. Lanpostuak txanda ezberdinetan betetzeko hautatze-prozesurako deialdia onestea, eranskinean ageri diren oinarriekin bat etorritz.

3. Eskaintza hau eta deialdiaren oinarriak ALHAOn eta BOEn argitaratzea.

4. Interesdun guztiei ematea ebazpenaren berri, zeinaren kontra, administrazio-bidea agortzen baitu, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu ahal izango baita zuzenean Vitoria-Gasteizko Administrazioarekiko Auzietarako Epaitegian, bi hilabeteko epean, jakinarazten den egunaren biharamunetik, edo, aukeran, berraztertze errekurtsoa, erabakia hartu duen organo berari zuzendua, hilabeteko epean, jakinarazte-egunaren biharamunetik; horri buruzko ebazpen espresuaren kontra, berriz, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu ahal izango da Vitoria-Gasteizko Administrazioarekiko Auzietarako Epaitegian, bi hilabeteko epean, errekurtsoa ezesten duen ebazpena jakinarazten den egunaren biharamunetik.

Vitoria-Gasteizen, 2020ko urriaren 21ean

Giza baliabideen zinegotzi ordezkaria
IÑAKI GURTUBAI ARTETXE

Gasteizko Udalaren zerbitzura karrerako funtzionario sartzeko oinarriak

Lehena.- Deialdiaren xedea.

1.1. Behin-behineko enpleguak egonkortzeko deialdi honen helburua da eskala orokorrean eta eskala berezian hutsik dauden hainbat lanpostu karrerako funtzionario gisa betetzea, txanda irekiko eta barne-sustapeneko oposizio-lehiaketaren sistema baliatuz; "2020ko deialdia" eranskinean zerrendatzen dira horiek, eta 2018ko LEPari eta 2019ko LEPari dagozkio, zeinak 2018ko abenduaren 28an eta 2019ko abenduaren 13an eta 20an onetsi baitzituen Gobernu Batzarrak.

1.2. Oinarri orokor hauetan legez araututakoari jarraituko zaio, hauetan ezarritakoari bereziki: apirilaren 2ko 7/1985 Legea, Toki Jaurbidearen Oinarriak arautzen dituena; apirilaren 18ko 781/1986 Legengitzako Errege Dekretua, Toki Jaurbidearen Oinarrien Legearen testu bateratua onesten duena; urriaren 30eko 5/2015 LED, Enplegatu Publikoaren Oinarriko Estatutuaren Legearen testu bateratua onesten duena; abuztuaren 2ko 30/1984 Legea, Funtzio Publikoa Berritzeko Neurriak biltzen dituena; ekainaren 7ko 896/1991 Errege Dekretua; Eusko Legebiltzarraren uztailaren 6ko 6/1989 Legea, Euskal Funtzio Publikoarena; Eusko Legebiltzarraren azaroaren 29ko 10/1982 Oinarriko Legea, Euskararen Erabilpena Arauzkotzekoa; apirilaren 15eko 86/1997 Dekretua, euskal administrazio publikoetan euskararen erabilera normalizatzeko prozesua arautzen duena; apirilaren 8ko 64/2008 Dekretua, euskararen ezagutza egiaztatzen duten titulu eta ziurtagirien arteko baliokidetzak finkatu eta Hizkuntzen Europako Erreferentzi Marko Bateratura egokitzea; 2007ko martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoa, Emakumeen eta Gizonen arteko berdintasun Eraginkorrari buruzkoa; Eusko Legebiltzarraren otsailaren 18ko 4/2005 Legea, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako; martxoaren 10eko 364/1995 Errege Dekretua, Estatuko administrazio orokorrean sartzeko eta lanpostuak hornitu eta funtzionario zibilen lanbide sustapenerako erregelamendu orokorra onartzen duena; abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoa, Datu Pertsonalak Babesteari buruzkoa, eta Eusko Legebiltzarraren otsailaren 25eko 2/2004 Legea, datu pertsonaletarako jabetza publikoko fitxategiei eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoa sortzeari buruzkoa.

1.3. Deialdiari buruzko informazioa:

- Webgunean: www.vitoria-gasteiz.org/hautatze-prozesuak.
- Iragarki-taula elektronikoan.
- Herritarrei laguntzeko bulegoetan — San Antonio kaleko 10.ean, gizarte etxeetan eta Ariznabarra Kiroldegia — eta udalaren bulego teknikoetan — Teodoro Dublang Margolariaren kalea, 25 —.
- Argibideetarako telefonoan: 010 (Gasteiztik deituz gero edo 945 161616 (Gasteiztik kanpotik deituz gero).
- Deialdi honetako Herritarren Postontzi espezifikoa.

1.4. Barne sustapeneko txandan eskaini eta hutsik geratu diren lanpostuak txanda irekikoari gehituko zaizkio, baldin eta ekitaldi honetarako ezarritako berritze-tasa gainditzea ez badakar.

1.5. Orobat, kategoria berean hutsik dauden dotazioak gehitu dakizkioke eskaintzari, Gobernu Batzarrak hori aldeztetik onetsita eta ALHAOn argitaratuta, baldin eta oposizio-fasea amaitu ez bada.

1.6. Desgaitasuna dutenentzat gordetako lanpostuak bete gabe geratzen badira txanda irekiko langileek bete ahaliko dituzte. Abenduaren 3ko 2271/2004 Errege Dekretuak — desgaitasuna duten pertsonak enplegu publikora iristea eta lanpostuak betetzea arautzen du — 3. artikuluan

xedatutakoaren ildotik, desgaitasuna duten pertsonentzat erreserbatutako lekuen ehunekoa (ehuneko 3) desgaitasuna duten pertsonen bidez betetzen ez badira, bete ez diren leku hutsen kopuruak hurrengo eskaintzaren legezko gutxieneko kupoari gehituko zaizkio, gehienezko muga ehuneko 10ekoa delarik.

1.7. Eskaintza zabaltzea eta txanda irekia handitzea jada eskaintako lanpostuetara mugatuko da, alegia, eskaintako kategorietako baten barruan sartu beharko da, eta gutxienez euskara derrigortasun maila bera duen lanpostu bat egon beharko du eskaintzan.

Bigarrena.- Betekizunak.

Betekizun hauek guzti-guztiak bete beharko dituzte izangaiek:

2.1. Eskabideak aurkezteko epea bukatzen denerako espainiar nazionalitatea edukitzea, edo Europar Batasuneko estaturen batekoa, edo Europar Batasunak sinatu eta Espainiak berretsitako nazioarteko hitzarmenen arabera langileen joan-etorri librea aplikagarri zaion herrialderen batekoa izatea.

Orobat, parte hartu ahal izango dute Europar Batasuneko estatuetakoren bateko hiritartasuna dutenen ezkontideek (zuzenbidez banatuta ez badaude), baita haien ondorengoek nahiz ezkontideenek ere, baldin eta bi ezkontideak zuzenbidez banatuta ez badaude eta ondorengo horiek hogeita bat (21) urtetik beherakoak badira edo adin horretatik gorakoak izanda ere gurasoen kontura bizi badira.

2.2. Eskabideak aurkezteko epea bukatu aurretik hamasei (16) urte beteta edukitzea, eta nahitaezko erretirorako adinera iritsia ez izatea.

2.3. Eskabideak aurkezteko epea bukatzen denerako dena delako lanposturako eskatzen den titulazio akademiko ofiziala edukitzea edo hura eskuratzeko ordaindu beharrekoa ordainduta edukitzea, eta lanpostu bakoitzaren berariazko oinarrietan adierazitako gainerako betekizunak ere betetzea, oinarri espezifikoez bestelako eperik ezartzen ez badute.

2.4. Dossier zigortzaileraren bat dela medio administrazio publikoen zerbitzutik baztertuta ez izatea, eta funtzio publikoak betetzeko gaitasungabetua ez egotea, ez eskabideak aurkezteko epean, ezta hautatze prozesuaren tarte batean edo prozesu osoan ere.

2.5. Zereginak betetzeko gaitasun funtzionala edukitzea, eta lanpostuari dagozkion zereginak egitea galaraziko lukeen osasun arazorik ez edukitzea. Segurtasun, Higiene eta Ergonomia Zerbitzuak erabakiko du gaitasuna, lanpostuaren arabera.

2.6. Deitutako lanpostuen hizkuntza-eskakizuna (euskara). Hizkuntza-eskakizuna betetzeko data igarora duten lanpostuetara aurkezten diren izangaiek, edo merezimenduetan hori kontuan hartzea nahi dutenak, Euskara Tituluen eta Ziurtagirien Erregistro Bateratuan egiaztatua ez badute, hautatze-prozesuaren barruan hizkuntza-eskakizuna egiaztatzeko deitzen diren probetara aurkeztu ahaliko dira, edo egiaztatua dutela nahiz salbuetsita daudela adierazten duen ziurtagiri ofiziala aurkeztu beharko dute. Hizkuntza-eskakizunaren egiaztatzea aurkezten dutenen kasuan, deialdiko lanpostuari dagozkion hizkuntza-eskakizuna egiaztatzeko lehen proba baino lehenagokoa izan beharko da egiaztatua duten hizkuntza-eskakizun horren data. "Eskaintza" eranskinean zehazten da zenbat lanpostutan egiaztatu behar den dagokion hizkuntza-eskakizunak eskatzen duen maila. Ordezkapenak egiteko kontratazio-zerrendak osatzeaz diharduen 13 oinarrian ezarritakoaren

ondorioetarako ez bestetarako, hizkuntza-eskakizuna egiaztatzeko probak ez gainditzeak ez du hautatze-prozesutik kanpo uztea ekarriko.

2.7. Izen-emate tasaren baldintzak. Hutsik dauden lanpostuen jabe izango direnak hautatzeko lehiaketa, oposizio eta oposizio-lehiaketetan parte hartu ahal izateko Gasteizko Udalak finkatuak dituen tasak ordaintzea —zein titulazio taldeetarako lehiatzen den, horri dagokiona—, eskabideak aurkezteko epearen barruan. (7.13. Tasa)

2.8. IT txartelak. Berariazko oinarrietan zehaztuko da zein den ziurtagiri horien udal multzoa (IT01-IT02-IT03-IT04-IT05) lanpostu bakoitzerako. Hautaketa-prozesuen web-orrian informazio osagarria eskuratu ahal da multzo bakoitzari dagozkion ziurtagiri zehatzei buruz. Horiek lortzeko gehieneko epea 6 hilabetekoa izango da, deialdiaren iragarkia BOEn argitaratzen denetik kontatzen hasita, bai lanpostuan bai kontratazio-zerrendetan sartzeko. Ziurtagiriak ofizioz eskatuko zaizkio erakunde ziurtatzaileari.

2.9. Barne-sustapeneko txandan parte hartu ahal izateko, funtzionarioek berariazko betekizun hauek bete behar dituzte eskabideak aurkezteko epea bukatzen den egunerako: zerbitzu aktiboan egotea; Gasteizko Udalaren zerbitzuan karrerako funtzionario gisa bi urte beteta izatea bere eskalan eta taldean; sartu nahi duen eskalarako behar den titulazioa eduki eta gainerako betekizunak betetzea; epai irmoa dela bide jarduera publikorako ezgaitua ez izatea; diziiplina zigor irmoa dela bide zerbitzutik baztertua ez izatea, edo funtziorik gabe utzia ez izatea.

2.10. Txanda irekian desgaitasuna duten pertsonentzat erreserbatutako kupoan parte hartzeko berariazko betekizunak. Desgaitasuna duten pertsonentzat erreserbatutako kupoko lanpostuetarako lehiatzen direnek, eskabidean erreserbaz baliatu nahi dutela adierazteaz gain, ehuneko 33ko edo hortik gorako desgaitasuna izan beharko dute —horretarako eskumena duen administrazio-organismoak hala aitortua— eskabideak aurkezteko epea bukatu aurretik.

Lanpostu bakoitzaren eranskinean zehazten da zenbat lanpostu gordetzen diren txanda horretan. Laneko Osasunaren Atalak erabakiko du gaitasuna, lanpostuaren, desgaitasunaren eta minusbaliotasun mailaren arabera.

2.11. Deialdi bakoitzeko, ezarritako bi txandetako batean parte hartu ahal da: Txanda Irekian (T.I) edo Barne-Sustapeneko Txandan (BST).

Hirugarrena.- Eskabideak aurkeztea.

3.1. Hautatze probetan parte hartu nahi dutenek udalaren web-orrian (www.vitoria-gasteiz.org/hautatze-prozesuak) dagoen eskabide elektronikoaren bitartez izapidetu beharko dute edo Herritarrei laguntzeko bulegoetan.

3.2. Halaber, Estatuko Administrazio Orokorraren, autonomia erkidegoaren edo tokian tokiko administrazioaren mendeko edozein administrazio-organoren bidez aurkeztu ahal izango dira eskabideak. Postetxeetan eta Espainiak atzerrian dituen kontsulatu-tako eta ordezkari-tako diplomatikoetako bulegoetan ere aurkeztu ahal dira.

3.3. Aurreko ataletan adierazitako moduan aurkeztu beharko dira eskabideak, 20 egun balioduneko epearen barruan, deialdiaren iragarkia BOEn argitaratzen den egunaren biharamunetik kontatuta.

3.4. Probak zein hizkuntzatan —euskaraz ala gaztelaniaz— egin nahi dituzten adierazi beharko dute izangaiek eskabidean. Atal horretan ezer adierazten ez badute, probak gaztelaniaz egin nahi dituztela esan nahiko du.

3.5. Azterketa egiteko ordaindu beharreko tasak. Zein lanpostutarako izena ematen duen, talde horretakoei dagokion kuota ordaindu beharko du izangai bakoitzak, izena emateko uanean indarrean dagoen udal ordenantzaren arabera, eta horretan ezartzen diren salbuespen eta murrizketak aplikatuta.

3.6. Eskabidea aurkezten denean jasoko den ordaintzeko agindua baliatuz ordaindu beharko da tasa —nominala eta banakatua izango da lanpostu bakoitzerako—.

3.7. Agiri bidez edo horretarako egiten den probaren bidez lanposturako eskatzen den hizkuntza maila dutela egiaztatzen dutenek derrigorrezko hizkuntza-eskakizuna duten lanpostuetara zein ez dutenetara sartu ahalko dira. Ikus 11.4. oinarria.

3.8. Parte hartzeko eskabideari ez zaio erantsi beharko ez betekizunei ez merezimenduei dagokien egiaztagiririk. (Egiaztatzeko dokumentazioa aurkezteari dagokionez, ikus 9. oinarria).

3.9. Eskabidea aurkezteak berekin dakar deialdian eskatutako baldintzak eta betekizunak onartzeko konpromisoa. Inork datu faltsurik ematen badu, hautatze-prozesutik kanpo utziko da.

Laugarrena.- Borondatezko ariketak eta egokitzapenak.

4.1. Borondatezko euskara proba. Dagokion egiaztagiria ez dutelarik hizkuntza-eskakizuna egiaztatzeko probak egin nahi dituzten izangaiek —betekizuna nahiz merezimendua izan— eskabidean adierazi beharko dute; izan ere, ez zaie horietan parte hartzeko aukerarik emango eskabideak aurkezteko epean hala adierazten ez dutenei. Eskuratu nahi den lanpostuari zein maila dagokion, horretarako azterketa egitea eskatu ahalko da, ez goragokorik.

4.2. Probak desgaitasunen bat dutenentzat egokitzea. Aitortutako desgaitasuna dela eta probetan egokitzapenak egiteko eskubidea dutenek eskabidearen oharren atalean adierazi beharko dute, Giza Baliabideen Sailera idatziz jakinaraziz, desgaitasun mota eta eskatzen den egokitzapena zehaztuz; idazkia proba egitekoa den eguna baino 10 egun baliadun lehenago bidali beharko da gutxienez. Hautatze probak egiteko beharrezko diren denbora- eta baliabide-egokitzapenak egingo ditu Epaimahaiak. Nolanahi ere, ezingo du proba horien edukia itxuragabetu, ezta eskatu beharreko gaitasun-maila jaitsi edo murriztu ere, ekainaren 9ko PRE/1822/2006 Aginduak —zeinaren bitartez enplegu publikora sartzeko hautatze prozesuetan desgaitasunen bat duten pertsonen denbora gehigarria emateko irizpide orokorrak arautu baitziren— aurreikusitakoaren ildotik.

4.3. Egokitzapenak amatasuna dela eta. Haurdunaldian edo edoskitze aldian daudenen ere egokitzapenak eskatu ahalko dituzte; horretarako, proba egin baino 10 egun baliadun lehenagotik gutxienez idatziz jakinarazi beharko diote Giza Baliabideen Sailari.

Bosgarrena.- Izangaiei zerrenda.

5.1. Eskabideak aurkezteko epea bukatu ondoren, hautatze prozesuan parte hartzeko eskabidea egin dutenen behin-behineko zerrendak onetsiko ditu Giza Baliabideen zinegotzi ordezkariak, eta Arabako Lurralde Historikoaren Aldizkari Ofizialean (ALHAO) eta udalaren iragarki-taulan argitaratzeko

aginduko. Orobat adieraziko da izangaiek 10 egun balioduneko epea izango dutela akatsak zuzentzeko, halakorik bada.

Seigarrena.- Epaimahai kalifikatzailea.

6.1. Espezialitate bakoitzeko erreferentziazko Epaimahai bakarra izango da. Hauek osatuko dute Epaimahaia: lehendakaria (Giza Baliabideen burua edo hark ordezko izendatzen duena), hiru teknikari eta haien ordezkoak, eta idazkaria eta haren ordezkoa.

6.2. Inpartzialtasun- eta profesionaltasun-printzipioa bete beharko dute Epaimahaikoek.

6.3. Aholkulariak hartzerik izango du Epaimahaiak hala egitea beharrezkotzat jotzen duen saioetarako. Beren espezialitate teknikoetan baino ez dira arituko aholkulari horiek. Gizonak nagusi diren lanbideei dagozkien hautaketa-prozesuetan, Epaimahaiak berdintasunaren arloari buruzko aholkularitza izango du nahitaez.

6.4. Gizonezko eta emakumezkoen arteko oreka izan beharko du Epaimahaiak, hau da, gutxienez ehunetik 40 izan beharko dute batzuek nahiz besteek, hori egoki ez dela justifikatu ezean.

6.5. Beharrezko diren neurriak hartuko ditu Epaimahaiko buruak Epaimahaiaren aurrean irakurtzekoak ez diren eta balorazio automatikoa izango ez duten azterketa-aldiko idatzizko ariketak zein izangairenak diren jakin gabe zuzentzen direla bermatze aldera.

6.6. Epaimahaiak erabakiko ditu arau hauek aplikatzean sortzen diren zalantzak oro, baita arautu gabeko kasuetan nola jokatu ere.

6.7. Epaimahaiko kide guztiek izango dute hitza eta botoa. Berdinketarik izanez gero, Epaimahaiburuak kalitateko botoa izango du.

6.8. Eskatzaileen behin-behineko zerrendarekin batera emango da argitara epaimahaikide eta ordezkoren izenen zerrenda.

6.9. Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundearen esku utziko da hizkuntza-eskakizunak egiaztatzeko probak egitea.

6.10. Epaimahaia ezingo da eratu, ezta jardun ere, bertako kideen erdia baino gehiago, titular nahiz ordezko, bertan ez badira. Gainera, ezinbestekoa izango da Epaimahaiburua eta Idazkaria bertan izatea.

6.11. Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 23. eta 24. artikuluetan aurreikusitako kasuetan, epaimahaikideek ezingo dute parte hartu, eta deialdia egin duen agintariari eman beharko diote horren berri. Gainera, izangaiek errefusatu egin ahal izango dituzte.

6.12. Izangairen batek deialdian ezarritako betekizunen bat betetzen ez duela jakiten badu Epaimahaiak hautatze-prozesuko edozein unetan, hura baztertzeko proposamena egin beharko dio horretarako eskumena duen organoari —aldez aurretik interesdunari entzunaldia eskaini beharko badio ere—, izangaia egindako okerren nahiz faltsutasunen berri ematen diolarik.

6.13. Prozesuaren edozein faseri dagokion dokumentazioa eskatu ahal izango du Epaimahaiak hautatze-prozesuko edozein unetan, bertako edozein kidek hala eskatzen duelarik.

6.14. Epaimahaiburua edo haren ordezkoa ordeztu beharra badago (kargua hutsik geratu delako, bertan ez direlako, gaixorik daudelako edo legezko beste edozein arrazoiengatik), maila goreneko epaimahaikidea izango da ordezkoa, eta maila berekoen artean, zaharrena. Epaimahaiko idazkaria ordeztu beharra badago, Epaimahaiak gehiengoz erabakitzen duen kideak ordeztuko du.

6.15. Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 45.1.b artikulua ildotik, Gasteizko Udalaren Iragarki-taula izango da hautatze-prozesuko erabakiak, deiak, azterketa-deialdiak eta bestelako komunikazio-ekintzak argitaratzeko leku ofiziala, eta banan-banako jakinarazpenen ondorio berberak izango dituzte argitalpen horiek. Nolanahi ere, udalaren web-orriaren bitartez (www.vitoria-gasteiz.org/hautaketak) eta herritarren argibideetarako 010 telefonoaren bitartez ere emango du informazioa Giza Baliabideen Sailak.

6.16. Lehenengo saioan, barne funtzionamendurako araudia onetsiko du epaimahaiak.

Zazpigarrena.- Ariketen nondik norakoak eta komunikazioak.

7.1. Udalaren web-orrian (www.vitoria-gasteiz.org/hautatze-prozesuak) argitaratuko dira lanpostu bakoitzari dagozkion eranskinak, berariazko betekizunak eta gai-zerrendak zehaztuta; orobat, bertan jarriko dira eskuragarri zereginen katalogoak eta egokitutako jotzen den gainerako dokumentazioa.

7.2. Izangai guztiek batera egiten ez dituzten ariketetan, abizenen ordenaren arabera zehaztuko da parte hartzeko hurrenkera (bakarka edo taldean), Administrazio Publikorako Estatu Idazkaritzaren ebazpenean zehaztutakoari jarraituz ariketarako deialdia egiten den egunean indarrean dena kontuan hartuz.

7.3. Dei bakarra egingo zaie izangaiei ariketa bakoitzerako, 7.10 oinarrian jasotako egoeretan salbu. Epaimahaiak nahitaezko probak egiteko zehazten dituen egun, ordu eta lekuetan agertzen ez direnak hautatze-prozeduratik baztertuta geratuko dira besterik gabe. Berdin jokatuko da nahitaezko probetara haiek egiten hasi ondoren agertzen direnekin. Nahitaezko probek ariketa bat baino gehiago badute, horietako edozeinetara ez agertzea edo berandu agertzea joko da ez agertzetzat.

7.4. Nortasun agiria, pasaportea edo gida-baimena eraman beharko dute lehiakideek probetara, eta edozein unetan eskatu ahal izango die Epaimahaiak erakusteko. Epaimahaiak proba bakoitzerako ezartzen dituen materialak ere eraman beharko dituzte.

7.5. Ariketak ezingo dira hasi deialdi honen iragarpena BOEn argitaratzen denetik hiru hilabete igaro aurretik. Udalaren Iragarki-taulan eta webgunean jakinarazi dira lehen ariketa egiteko lekua, eguna eta ordua, gutxienez hamar egun baliodun lehenago.

7.6. Hurrengo ariketa-saioetara dei egiteko iragarkiak Iragarki-taula berean eta udalaren webgunean argitaratuko dira, gutxienez ere hamar egun baliodun lehenago.

7.7. Oposizioko probak 8. oinarrian adierazitako hurrenkera ez baizik eta beste batean egitea erabaki ahal izango du Epaimahaiak, edo horietako batzuk egun berean egitea. Kasu horretan, aurrekoak gainditu dutenen emaitzak baino ez dira ebaluatuko.

7.8. Epaimahaiak erabakiko du, aurkeztutako izangaien kopurua eta hautatze-prozeduraren konplexutasuna aintzat harturik, zer egin lehenengo, lehiaketa-aldia ala oposizio-aldia.

7.9. Prozesura aurkeztutakotzat agertzen direnek joan beharko dute probetara, aurreko probak gaindituak dituztelarik, baita —kautelazko neurri gisa— baztertuta egon arren Epaimahaiari emaitzen kontrako alegazioa edo Giza Baliabideen zinegotziari berraztertze errekurtsioa aurkeztu diotenek edo aurkeztekotan direnek ere, baldin eta artean azken hori ebatzi ez bada. Kasu batean nahiz bestean, hautatze-prozesuan jarraituko dutela jakinarazi beharko diote epaimahaiari, beharrezkoak diren baliabideak eta materialak jar ditzan.

7.10. Aparteko deialdiak. Kasu hauek eragindako pertsoneri aparteko deialdi batera deitu beharko die Epaimahaiak: deitutako proba egin aurretik ama izatea; erditze-data proba egiteko data baino 15 egun natural aurreragokoa izatea gehienez, edo aurreikusitako datan proba egitea eragotzi duen ezinbesteko arrazoiren bat, Epaimahaiak aintzat hartu badu. Deialdi nagusia egin ondoren 15 egun natural baino laburragoa eta 40 egun baino luzeagoa ez den epe baten barruan egin beharko da. Epaimahaiak probaren ezaugarriak egokitzeko ditu, eta behar diren egokitzapen pertsonalak hartuko dira kontuan.

7.11. Hautatze-prozesuaren garapena antolatze orduan, austeritate- eta bizkortasun-printzipioak aplikatuko ditu Epaimahaiak bere jardunean; horrek ez du eragotziko Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuan xedatutako printzipioak betetzea.

7.12. Izangaiek ezingo dute epaimahaikideengana jo, ez zuzenean ez hirugarrenen bitartez, hautaketa-prozesuarekin lotutako ezein gairi buruz hitz egiteko. Hautaketa-prozesuaren inguruan zalantzarik sortuz gero idatziz azalduko dizkiote Epaimahaiari, eta hark dagokiona erabakiko du, kide anitzeko organoa den aldetik.

7.13. Epaimahaiak hautatze-prozeduratik kanpo utzi ahaliko du probetako edozein normaltasunez garatzea eragozten duen iruzurrezko ekintzaren bat egiten duen oro, baita berdintasun-, merezimendu- eta gaitasun-printzipioei dagokienez konkurrentzia bidegabea sortzen duen oro ere, eta bilkura-aktan jasoko ditu jarduera horiek. Hautaketa-prozesua osatzen duten probetan ez da baimenduko gailu edo bitarteko elektronikoak eduki edo erabiltzea, horiek aipatutako printzipioak hausteko erabiltzerik bada. Izangai batek agindu horietakoren bat betetzen ez badu, berehala kanporatuko dute probatik zein hautaketa-prozesutik, eta ez da inola ere sartuko prozesutik sortzen den lan-poltsan.

7.14. Ez da baimenduko inolako erloju partikularrik erabiltzerik. Antolakuntzak ezarriko du proba amaitzeko zenbat denbora geratzen den jakinarazteko sistema (ahozkoa edo ikusizkoa), deialdiaren zirkunstantzien arabera.

Zortzigarrena.- Hautatze prozesua.

Bi fase izango ditu hautatze-prozesuak: Oposizioa eta Lehiaketa.

A.- Oposizio aldia: gehieneko puntuazioa, 59 puntu. Bi ariketa izango ditu, nahitaezkoak eta baztertzailak.

Lehen ariketa: gehieneko puntuazioa, 24 puntu. Test erako bi proba egin beharko dira, gai-zerrenda orokorrari eta berariazko gai-zerrendari buruz: galdera bakoitzean lau erantzun emango dira aukeran, eta hutsegiteak ez dira zigortuko. Ariketa gainditzeko, gutxienez 12 puntu lortu beharko dira.

- 1. proba (gai-zerrenda orokorra): 8 puntu (lortu daitekeen gehieneko puntuazioarekin lotuta).
- 2. proba (berariazko gai-zerrenda): 16 puntu (lortu daitekeen gehieneko puntuazioarekin lotuta).

Barne Sustapeneko Txandan lehiatzen direnak salbuetsita egongo dira lehen ariketako lehen proba egitetik, eta horri dagozkion 8 puntuak esleituko zaizkie.

Bigarren ariketa: gehieneko puntuazioa, 35 puntu. Proba teoriko-praktiko bat edo batzuk egin beharko dira, lanpostuaren funtzio eta zeregin nagusiekin zuzenean loturikoak. Ariketa gainditzeko, gutxienez 17,5 puntu lortu beharko dira.

Epaimahaiak item bakoitzari dagozkion ponderazio-irizpideak erantsiko dizkie galdera-orriei, eta zuzeneko puntuazioa lortzeko zuzenketa-formula, halakorik bada.

Deialdi bakoitzean, era independentean eta ariketa bakoitzean lortutako zuzeneko puntuazioak ikusirik, Epaimahaiak ponderazio-faktore bat aplikatuko du ariketaren puntuazioa kalkulatzeko, proben zailtasuna eta egiten duen kolektiboa harmonizatzearen. Ponderazio-faktorea ariketa bakoitza osatzen duten probetako bakoitzean lortutako puntuazioen batuketari aplikatuko zaio. Faktorea arau hauei jarraituz zehaztuko da:

- 1) Faktorea 1,00 izango da ariketara aurkeztu diren izangaien kopurua 3 edo gutxiago bada eskainitako lanpostu bakoitzeko.
- 2) Faktorea 1,00 izango da ariketa gainditu duten izangaien kopurua aurkeztu direnen % 50 edo gehiago direla egiaztatzen bada.
- 3) Gainditu dutenen ehunekoa % 50etik beherakoa bada, koefiziente bat aplikatuko da $-1,33$ baino gehiago ez dena— gainditzen duten izangaien kopurua % 50era iritsi arte.
- 4) Aplikatzen diren ponderazio-faktoreen balioek ezi dute ekarri ariketaren puntuazioa gehieneko balioaren (ariketan lortu daitekeen gehieneko puntuazioaren) gainetik handitzea.

B.- Lehiaketa aldia: gehieneko puntuazioa, 41 puntu.

M1.- Euskara jakitearen balorazioa. Gehieneko puntuazioa: 8 puntu. Egiaztatutako hizkuntza-eskakizunaren (HE) arabera balioetsiko da; lor daitekeen gehieneko puntuazioa lanpostuari dagokiona (B2) izango da.

- B1: 5,00 puntu (8,00 puntu lanpostuaren hizkuntza-eskakizuna IHE bada)
- B2 edo gorakoa: 8,00 puntu.

M2.- Esperientzia profesionala. Alor hauetako esperientzia profesionala baino ez da balioetsiko: Estatuko administrazio orokorra, autonomia-erkidegoetako administrazioak edo toki administrazioa osatzen duten entitateak (7/1985 Legearen 3 artikulua) eta erakunde autonomoak.

Bakarrik balioetsiko da karrerako edo bitarteko funtzionario gisa nahiz kontratupeko langile gisa izandako esperientzia profesionala, titulazio talde berean eta Epaimahaiaren iritziz eskainitako

lanpostuak dituen funtzio eta kategorien parekoetan, edozein harreman juridikoren bitartez, zerbitzu zibilak edo merkataritza-zerbitzuak alokatzeko kontratuak, bekak eta prestakuntza-praktikaldiak izan ezik; dena delako administrazio publikoak emandako "zerbitzuen ziurtagiriaren" bitartez egiaztatuko da esperientzia. Eskabideak aurkezteko epea bukatu aurrekoak bakarrik hartuko dira aintzat.

Gehienez 33 puntu lortu ahalko dira. Toki administrazioan eta erakunde autonomoetan egindako egun bakoitzeko 0,009 puntu emango da; gainerako administrazioetan egindako egun bakoitzeko, 0,005 puntu.

Bederatzigarrena.- Egiaztagiria aurkeztea .

9.1. Eskumena duen organoak emandako ziurtagiriaren bitartez egiaztatu beharko dira administrazio publikoetan egindako zerbitzuak; lanpostua, zereginak eta denbora adierazi beharko dira bertan. Ez dira aintzat hartuko lan-esperientziaren alorreko merezimenduak honako hauek berariaz adierazten ez badira:

- Betetako lanpostuaren izena eta lanbide kategoria.
- Kontratazio-aldien hasiera- eta bukaera-datak.
- Lanpostuaren eginkizun nagusiak, kategoria hutsa behar bezain deskriptiboa ez dela edo erreferentziazkoaren aski antzekoa ez dela uste izanez gero.

Gasteizko Udalean emandako zerbitzuak Epaimahaiak ezartzen duen moduan eta unean alegatu beharko dira, baina interesdunek ez dituzte egiaztatu beharko. Ofizioz zenbatuko dira.

9.2. Lehiaketa-faseko merezimenduak egiaztatzeko eta deialdiko betekizunak garaiz eta behar bezala betetzen direla egiaztatzeko behar diren agiriak Epaimahaiari aurkeztu beharko zaizkio, hark ezartzen duen moduan eta epean.

9.3. Ezinbesteko kasuetan izan ezik, baldin eta izangaiak agiri horiek aurkezten ez baditu adierazitako epean, edo eskatzen diren baldintzak eta betekizunak betetzen dituela egiaztatzen ez badu, ezin izango da izendatu, eta bertan behera geratuko dira haren jarduerak oro; horrek ez du galaraziko, gainera, eskabidean datu faltsuak emateagatik erantzukizunak eskatzea. Hala gertatuz gero, hautatze-prozesua gainditu dutenen arteko hurrengoak (azken puntuazio-hurrenkerari jarraituz) izendatzeko proposamena egingo du eskumena duen organoak, bete beharreko lanpostu guztiak bete arte (5/2015 LEDaren 61.8 artikulua).

Hamargarrena.- Emaizak argitaratzea.

10.1. Udalaren iragarki-taulan eta webgunean egingo ditu argitalpenak Epaimahaiak. Identifikazioak eta emaitzak barne hartzen dituzten eranskinak webgunean baino ez dira argitaratuko.

10.2. Epaimahaiarekiko komunikazioak posta elektronikoz egin ahalko dira, eta baliozkoak izango dira baldin eta eskabidean ondorio horietarako erregistratu den helbide elektronikotik bidaltzen badira, eta zuzen hartu dela bermatzen duen erantzuna jaso bada posta elektronikoz. Alegazioak edo erantzunak jaso izanaren baieztapena —bi noranzkoetan— ezinbestekoa da komunikazioa baliozkotzat jotzeko. Epaimahaiak erreferentziazko helbide elektronikoa adieraziko du bere argitalpenetan, eta gaian erabiltzeko kodeak ere ezarri ahalko ditu, mezuak hobeto kudeatu eta antolatzearen.

10.3. Epaimahaiak mezu elektronikoen bidez jakinaraz dezake dena delako hautaketa-prozesuari dagokion web-orrian argitalpen berriak egin direla. Ohartarazpen horiek adeitasun hutsez egingo dira, eta ez jasotzeak ez du balio gabetuko edo aldatuko argitalpenean ezarritako epea.

10.4. Proba idatziak bukatutakoan, baldin eta test modukoak izan badira, galdera-orriak eta erantzun zuzenen behin-behineko orria argitaratu ditu Epaimahaiak, eta bost egun balioduneko epea emango akatsak berrikusteko. Jakinarazitako akatsak kontuan izanik, Epaimahaiak behin betiko erantzun-orria onetsiko du, eta horren ondoren ariketa edo proba irakurri, eta kalifikazioa jarriko. Emaitzak argitaratu ondoren 3 egun balioduneko epea emango da gutxienez irakurketa akatsak erreklamatzeko, halakorik bada.

10.5. Idatzizko probak test erakoak ez badira, behin-behineko emaitzak argitaratu ondoren 2 egun balioduneko epea emango da dosierra eskuratu ahal izatea eskatzeko; behin-behineko emaitzaren kontrako edozein alegazio aurkeztu aurretik egin beharko da hori. 10.2 oinarrian ezarritako prozedurari jarraituz eskatuko da dosierra eskuratzea. Dagokion prezio publikoen eta tasen ordenantzak ezartzen duen tasa ordaindu ondoren, posta elektronikoa jaso eta Epaimahaiari jakinarazten zaionetik bi egun balioduneko epean gehienez, ariketaren kopia, zuzenketa-irizpideak eta horien aplikazioa jasoko dira gutxienez, pdf formatuan. Alegazioak aurkezteko epea bost egun balioduneko izango da, dokumentazioa jasotzen denetik.

10.6. Epaimahaiak ariketetako bakoitzaren behin betiko emaitzak onesteko hartzen duen erabakian aintzat hartutzat eta erantzuntzat joko dira horretarako epearen barruan izangaiek aurkezten dituzten berrikusteko eskabide eta erreklamazio guztiak. Ez da erantzun pertsonalizaturik emango.

10.7. Ariketa guztiak eta lehiaketa-aldia burutu ondoren, proba guztiak gainditu dituzten izangaien zerrenda emango du argitara Epaimahaiak, guztira lortutako puntuazioen arabera sailkatuta, ariketa bakoitzean lortutako puntuak nahiz azken puntuazioak ageri direla.

10.8. Behin betiko emaitzei buruzko erabakiaren kontra gora jotzeko errekurtoa aurkeztu ahal izango dute izangaiek, Gasteizko Udaleko Giza Baliabideen zinegotzi ordezkariari zuzenduta, hilabeteko epean, argitaratzen den egunaren biharamunetik kontatuta.

Hamaikagarrena.- Lanpostuen esleipena

11.1. Eskainitako lanpostuak interesdunen eskaeren arabera esleitu dira, hautaketa-prozesuan lortutako hurrenkeraren arabera, baldin eta lanpostuen zerrendan lanpostu bakoitzerako zehaztutako betekizun objektiboak betetzen badituzte.

11.2. Destinoen eskaintza, lanpostu/atal organiko/derrigortasun terminotan ulertuta, eskaintza edo haren handitzea oinarritzeko baliatu dena izango da. Destinoan dauden dotazioak eskaintzan sartutakoak baino gehiago badira, edo guztiak betetzen ez badira, lanpostu hutsa arauz betetzeagatik behin-behineko atxikipena amaitzeko protokoloa aplikatuko da.

11.3. Desgaitasuna dutenentzako txandatik datorren izangairen bat gai gertatu bada deialdian, Giza Baliabideen zinegotziak erabakiko du lanpostu horiek nola adjudikatu, mediku-txostenak, lanpostuen eskaintza eta horien ezaugarriak kontuan hartuta, lanpostuari ahalik eta ondoen egokitu dadin. Adjudikazio hori gainerakoak baino lehenago egingo da. Ondoren, barne-sustapeneko txandako lanpostuak aukeratuko dira, eta, gero, txanda irekikoak; desgaitasuna aitortua duten baina lanpostua

egokitzea behar ez duten pertsonak azken horretan sartuko dira, puntuazioaren arabera hurrenkeran.

11.4. Ez dira derrigorrezko data betea duten lanpostutzat joko eskaintza argitaratu zen uean horrelakorik ez zutenak, hautatze-prozesua bukatutakoan haien egoera zein den gorabehera.

11.5. Karrerako funtzionario izendatzeko proposatu diren pertsona guztiei destino bat esleitzen zaiela bermatzearen, destinoak aukeratzeko uean hizkuntza-eskakizuna egiaztatu ez duten eta aukeratzeko dauden izangaien kopurua eta hizkuntza-eskakizunik ez duten destinoen kopurua bera bada, hizkuntza-eskakizuna egiaztatu duten eta aukeratzeko dauden izangaiek hizkuntza-eskakizuna duten lanpostuen artean aukeratu beharko dute.

11.6. Puntuazioak direla eta aurkeztutako erreklamazioak aztertu ondoren, Giza Baliabideen txostenak aintzat harturik —titulazio betekizunak betetzen diren eta hizkuntza-eskakizunak egiaztatu diren adieraziko da bertan, eskaintako lanpostuak zehaztuko, eta Segurtasun, Higiene eta Ergonomia Zerbitzuak emandako gaitasun-kalifikazioak jasoko (2.5. oinarria)—, eta orobat aintzat harturik lehiaketa- eta oposizio-aldietan lortutako emaitzak, izendapen-proposamena argitaratuko du Epaimahaiak, eskaintako lanpostuen kopurua gaitututa gabe.

11.7. Berdinketarik gertatuz gero, Euskal Funtzio Publikoaren uztailaren 6ko 6/1989 Legearen 27. artikulua aldakuntza oinarritzat harturik, eta Gizon eta Emakumeen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen 20.4 artikulua aplikatuz, gaikuntza-maila bera izanez gero, lehentasuna emango zaie emakumeei emakumeen presentzia ehuneko 40tik beherakoa den kidego, eskala, maila eta kategorietan, beste izangaiek beste arrazoi batzuk eduki ezean, sexuagatik diskriminatzaileak izan gabe, neurri hori ez aplikatzea justifikatzen dutenak, esaterako, enplegua eskuratzeko orduan zailtasun bereziak dituzten beste kolektibo batzuetakoak izatea.

Berdinketa sexu bereko bi pertsona edo gehiagoren artean gertatzen bada, oposizio-fasean puntuaziorik handiena lortu duena proposatuko da, eta, berdinketak jarraituz gero, lehen ariketako puntuazio-hurrenkera hartuko da kontuan, eta, hurrenez hurren, hurrengo ariketetakoak. Berdinketak jarraituko balu, esperientzia zenbatzeko egiaztatu diren eta Epaimahaiak baliozkotu dituen egunen kopuru osoaren arabera ebaztuko litzateke —gehieneko puntuazioa gaitututa ere— eta, azken aukera gisa, izangai zaharrenari esleitu litzaike.

Hamabigarrena.- Izendapena eta lanpostuaz jabetzea

12.1. Agiriak aurkezteko epea amaitu ondoren, eta 30 egun baliouduneko epean gehienez, hautatze-prozesua gaitututa dutenak izendatzeko proposamena egingo du Epaimahaiak, azken puntuazio-hurrenkerari jarraiki, bete beharreko lanpostu guztiak bete arte (5/2015 LEDaren 61.8 artikulua).

12.2. Lanpostu horiei dagozkien behin-behineko izendapenen bukaera aldi baterako kontratazioetarako zerrenden araudiaren 25. artikuluari jarraituz zehaztuko da, edo hori garatzeko protokoloetan xedatutakoaren arabera.

12.3. Epaimahaiak izendatzeko proposamena eta hasteko data argitaratu ondoren, zehaztutako epean jabetu beharko du lanpostuaz izendatutako pertsonak eta 30 egun balioudun izango ditu gehienez lanean hastea berandutzeko, argitalpen horren egunaren biharamunetik.

12.4. Lanpostuaz jabetu aurretik, bateraezintasunik ez duela aitortu beharko du. Adierazitako epean lanpostuaz ez jabetzeak —pisuzko arrazoiren bat izan ezean— lanpostuari uko egin zaiola esan nahiko du. Halakoetan, beste izendapen bat proposatuko du Epaimahaiak.

12.5. Jaiotzagatiko baimena: seme edo alabaren baten jaiotza dela eta ezinezkoa bada lanpostuaz jabetzea, jaiotza eta edoskitze baimenaz gozatzeko atzeratu ahalko da hasteko unea, gainerako udal langileentzat erditu ondoren araututa dagoen aldirako. Edonola ere, ondorio ekonomiko eta administratiiboak promozioko gainerako kideen datetara atzeratuko dira.

12.6. Euskal Funtzio Publikoaren 6/1989 Legearen 45.8. artikuluan xedatutakoaren ildotik, dauden talderako finkatutako tartearen gutxieneko mailari dagokion gradu pertsonala izango dute esleitu funtzionario sartu berriek.

12.7. Destinoek behin betiko izaera izango dute ondorio guztietarako, lehiaketa bidez lortu izan balira bezala.

12.8. Ezinbesteko kasuetan izan ezik, ezarritako epean lanpostuaz jabetzen ez direnek Gasteizko Udaleko karrerako funtzionarioaren izaera lortzeko eskubideak galduko dituzte. Kasu horietan, edo hautatutako pertsonak izendatuak izan aurretik edo lanpostuaz jabetu aurretik horri uko egiten diotenean, edo jabetzan hartzeko unean lan-utzialdia eskatzen badu, lanpostua gorde gabe edo lanpostuan benetan hasi gabe, Giza Baliabideen Sailak beste pertsona bat praktikaldirako izendatzeko proposamena egingo du, hautaketa-prozesuaren emaitzak kontuan hartuz, dagozkien izangaien alde, hautaketa-prozesuaren azken puntuazioaren hurrenkerari jarraituz.

Hamahirugarrena.- Aldi baterako kontratazioetarako zerrendak.

13.1. Txanda Irekiko eta Barne Sustapenarekin Txanda Irekiko deialdiek aldi baterako langile-beharrei erantzuteko kontratazio-zerrendak sortuko dituzte, lanposturik lortu gabe oposizio-fasea gainditu duten pertsonekin. Zerrenda hori bi txandetako izangaiek osatuko dute, eta lortutako puntuazioaren arabera ordenatuta, ordura arte lanpostu eta kategoria profesional horretarako indarrean zeudenak ordezkatzeko dituzte, eta Udalak finkatua duen araudiari jarraiki kudeatuko dira.

13.2. Barne-sustapeneko Txandan soilik egiten diren deialdiak lanpostuak zerbitzu-eginkizunen bidez betetzeko prozesuetan erabiltzeko sortuko dira.

Hamalaugarrena.- Bibliografia.

14.1. Bibliografiarik ematen bada, orientabide gisa baino ez da ematen; alegia, ez ditu alderdi guztiak kontuan hartzen, eta beraz, ez da ez lotesletzat, ez erabatekotzat joko.

Hamabosgarrena.- Gardentasuna eta izaera pertsonaleko datuak babestearen alorreko politika.

15.1. Oinarri hauek, baita horiek betetzearen ondorio diren administrazio-egintzak ere, langileak hautatzeko eta aldi baterako kontratazioetarako zerrendak kudeatzeko prozesuetan datu pertsonalak babesteko udal protokoloari lotuta daude.

15.2. Protokolo hori nahitaez ezagutu beharrekoa da hautaketa-prozesuan parte hartzeko. Edozein unetan eskura daiteke protokolo hori, bai eskabidea egiteko unean —hautaketa-prozesuan onartua

izateko formularioan —, bai hautaketa-prozesuaren edozein unetan, bakoitzari dagokion web-orrian nahiz hautatze-prozesuen web-orriko "Araudia" atalean.

15.3. Parte hartzeko eskabidean bada aukera bat kontratazio zerrenda batean egon daitekeen pertsonak Gasteizko Udalari baimena eman diezaion identifikazio pertsonaleko datuak eta kontratazio-zerrendan duen hurrenkera beste erakunde batzuekin partekatzeko, kanpoko kontratazio-ekaintzak jasotzerik izan dezan.

15.4. Lan eskaintza publikoaren deialdi hau lehia-prozesu borondatezkoa da, eta gardentasuna eskatzen du. Hori dela eta, parte hartzen duten pertsonen identitateak argitaratu beharra dago, baita proba bakoitzean lortutako emaitzak ere. Pertsonen identifikazio-datuak eta hautaketa-prozesuan lortzen dituzten emaitzak bakarrik behar-beharrezko eremuan eta denboran erakusgai egon daitezen saiatuko da Udala.

15.5. Era berean, parte hartzen duten pertsonak sartzeko eskubidea duten administrazio-prozesua da. Eskubide horretatik ondorioztatzen da beste izangai batzuek ikusterik izango dutela horretan aurkeztutako dokumentazioa (azterketak, ziurtagiriak, merezimenduak...), horretarako ezarritako udal prozedurek ezartzen duten moduan.

